

**“BAKEAREN LORE GARA” PROIEKTU ARTISTIKOAREN DEIALDIA****Gaia**

Dimako Herrian 2016an “Txumuluxueta Elkartea” memoria historikoaren lanketarekin hasi zen. “Gerra zibila Diman” berbaldi aurkezpenarekin hasi ginen. Bertan gerra garaiko testuingurua aztertu zen, Dimako ordezkariak politikoa orduan zertan zen eta zeintzuk ziren orduko kezak. Horretarako herriko udaleko aktak izen ziren ebidentzien sorburu. Horrez gain, garai horretako alkatearen esperientzia krudela ere eman zen berak hiltorian zegoela idatzitako bertso batzuen bidez.

Horrekin batera, gerrak Euskal Herrian eta bereziki Dima inguruetan izandako ibilbidea eta aurrerapenaren hitoak deskribatu ziren grafikoki. Garrantzitsuak Dimoztarrentzat leku esanguratsuak diren eta izan zirenak Saibegain, Eskubaratz, Altun, Zumeltza e.a .. gogora ekarri genituen.

Urte horretan gerrak Diman utzitako zenbait ondorio latzekin amaitu genuen, besteak beste herrietan ere gertatu diren ikusezinak, salaketak, mesfidantza giroa ...

2017ko apirilean udalarekin batera ekitaldi soziala antolatu zen herrian bertan. Bertako dokumentazioa ondo jasota dago udaletxean bertan. Lau pertsonen testigantza zuzenak emateaz gain, bereziki gerran eta gerra ondoren errepresaliatuak (hildakoak, zigortuak, kartzelaratuak) gogoratu genituen. Eta horretarako euren familietako ordezkariekin harremanetan jarri eta banan-banan deitu genituen. **Bakearen lore gara** deitu zen ekitaldia hunkigarria izan zen.

Gerraren giza dimentsioa da bereziki interesatzen zaiguna. Gure herritarrak bizi izan zituzten egoerak gogora ekartzea, zapalduak izan ziren pentsaerei aitortzea egitea, azken baten herri bat sortzen duten pertsonak gogoratzea.

2018rako ekimen honekin jarraitu nahi dugu. Beti ere dimentsio humanoa indartuta, orduko egoerak eta bizipenak gaurkora ekarrita, sekula gehiago errepikatu ez dadin. Une baten arte eta estetika ikuspuntutik zerbait *iraunkorra* eta beti ere gure orduko andre, gizon eta umeen gogorapena ekarriko digunaz ari gara pentsatzen.